

EVA CAMPO MÜLLER SARIA ARAUTZEN DUTEN OINARRIAK

Eva Campo Müller elkarteak bere izena daraman saria sortu du bere omenez. Izan ere, elkarteak osatzen dugunontzat inspirazio iturri izan baitzen, eta espero dugu gizarte eraldaketa helburu dituzten egitasmoak inspiratzen eta laguntzen jarraitzea.

Sariaren helburua izango da, beren ibilbide pertsonal zein profesionalean, Eva Campo Müllerrek gorpuztu eta defendatu zituen bizitza filosofia, balioak eta konpromisoak bere egiten eta zabaltzen dituzten pertsonak, kolektiboak edo proiektuak publikoki aintzatetsi eta babestea.

Eva Campo Müller, emakumea, gizatiarra eta humanista. Aske izan zen gizatasunari eta munduari buruz hausnartzeko. Ingurua ulertu nahiak gidatu zuen; behatzen eta esperimendatzen zuen guztiarekin kritikoa izateko jakin minarekin beti ere. Bere ekintzetan aske eta arduratsu izateko jantzi zuen bere burua, mundua alda zitekeelakoan. Artetik, feminismitik eta ekologismitik edan zuen proiektu artistiko, ekintzaile eta errealistak babesteko eta sortzeko. Asko bidaiatutakoa, hainbat lekutan bizi izan zen, hainbat kontinentetako herrialdeetan, eta horrek balio izan zion erabat sinesteko dena oso lotuta dagoela, eta planetako edozein txokotan eraldaketa sozialerako ematen den urrats txiki orok eragina duela giza eta lurreko bizitzaren orekan. Minbiziak ezin izan zuen amets egiteko eta beste mundu batzuk sortzeko gogo hori itzali; horren froga da hemen daudela bere funtsa eta izpiritua, pertsona, erakunde eta proiektu eraldatzaileak bultzatuz eta lagunduz.

1. Hautagaitzen jarduera-eremuak

Honako arlo hauetan ekarpena egiten ari diren pertsona, erakunde edo proiektuek jaso ahal izango dute saria:

-Genero berdintasuna: Emakumeen ahalduntzea eta pertsonen arteko berdintasun harremanak sustatzen dituztenak.

-Kultur aniztasuna eta sormena: Kultura aniztasuna balioesten dutenak. Berdintasun eta askatasun balioetan oinarritzen diren sorkuntza proiektu edo jardueren atzean dauden ibilbide profesionalak.

-Osasun arduratsua: Pertsonak (batez ere emakumeak) ahalduntzera eta beren osasunaz arduratzera bultzatzen dituztenak.

-Tokiko eta komunitate garapena: Dagokien eremuan, ehun sozioekologikoa (subjektua eta objektua) kontuan hartzen dutenak, eta, maila sozialean, lurraldea hiru arlotan egituratzen dela: publiko-instituzionalean, ekonomikoan eta komunitarioan.

-Hirigintza inklusiboa: Herrien eta hirien beharrei eta erronkei (espazio publikoaren okupazio jasangarria, etxebizitza, ekipamendu publikoak...) modu inklusiboan eta partaidetzan oinarrituta erantzuten dietenak.

-Elikadura burujabetza: Lehen sektorea eta tokiko produktuen kontsumoa sustatzen dituztenak, merkaturatzeko bide laburrak erabiliz.

-Gizarte-ekonomia eraldatzailea: Pertsonak erdigunean jartzen dituen garapen ekonomikoari eusten diotenak, mota horretako enpresak sortzea

sustatu edo enpresa tradizionalak eredu horretara eraldatzea planteatzen dutenak.

2. Balorazio irizpideak

Aurkezten diren hautagaiek honako hauek bete beharko dituzte beren jardueran:

-Bizitza erdigunean: Pertsonen eta naturaren bizitza mantentzea eta hobetzea.

-Parte hartze kolektiboa: Inplikaturako pertsonen horizontaltasuna eta hurbiltasuna bermatzea.

-Erresilientzia gaitasuna: Eragileen kontzientzia gizarte bizitzaren konplexutasunari buruz; eraldaketa lortzeko betiere egokitzeko gaitasunaren eta borondatearen beharra.

-Prozesua: Dinamismoa eta tokiko errealitatera egokitzea, batetik, eta tokiko komunitatearekiko harremanak sortzeko balioko duen lan egiteko modua, bestetik.

-Eskala: Dagokion eragin eremuko ehun sozioekologikoa osatzen duten hiru arloak, publiko-instituzionala, ekonomikoa eta komunitarioa aintzat hartzea

3. Hautagaitzen aurkezpena

Irabazi asmorik gabeko pertsona fisiko zein juridikoek eskuratu ahal izango dute saria, baldin eta, beren jarduera eta ibilbidearekin, arestian aipaturako balioen aplikazioan eragin soziala badute edo izan badute.

Hautagai bakoitzak dokumentazio hau aurkeztu beharko du:

- a) Deskribapen memoria bat, hautagaitza argudiatu eta justifikatzeko. Proiektuaren lider edo onuradun gisa inplikaturako pertsonak zehaztu beharko dira. Genero eragina izatea baloratuko da. Proiektua grafikoki ilustratu beharko da, argazkiekin edo ikus-entzunezko beste baliabide batzuekin. Hautagai den pertsona edo erakunderen aldeko abalak edo atxikipenak baloratuko dira, eta dokumentu honen zati gisa entregatuko dira. Dokumentazioa euskaraz, gaztelaniaz edo frantsesez aurkeztuko da, eta euskaraz edota hiru hizkuntzetan egitea baloratuko da.
- b) Pertsonen edota erakundearen izen-abizenak, posta elektronikoa, telefonoa, nortasun agiriaren kopia eta curriculuma.

Sarirako hautagaitzak 2021eko martxoaren 1era arte aurkeztu ahal izango dira helbide hauetan:

evacampomuller.elkartea@gmail.com

Eva Campo Muller elkarteak – Aixin zolua 5, beheak, – 20304 IRUN

4. Epaimahaia

Jasotako hautagaitza guztiak Eva Campo Müller Elkarteak izendatutako epaimahai batek baloratuko ditu. Epaimahaia honako bost kide hauek osatuko dute: Hiritik At kooperatibako kide bat, Farapiko kide bat, Eva Campo Müller Elkarteko kide bat, gizarte berrikuntzan aditua den pertsona bat eta sarirako hautagai diren proiektuen arabera aukeratuko den kide bat.

5. Epaimahaiaren erabakia

Epaimahaiaren ebazpenean hartutako erabakia justifikatzen duten arrazoiak adieraziko dira, oinarri hauetan zehazten diren irizpideen, eta epaimahikieen jakintza eta ulermenaren arabera. Hala badagokio, saritutako pertsona, erakunde edo proiektuak epaimahaiarentzat duen esanahia eta merezi duen balorazioa adieraziko dira.

Deialdia hutsik gera daiteke epaimahaiak hala erabakitzen badu.

Epaimahaiak ebazpen proposamena jasotzen duen akta aurkeztuko du, eta 2021eko apirilaren 1a baino lehen jakinaraziko zaio pertsona, erakunde edo proiektu irabazleari.

6. Sariaren ezaugarriak

Epaimahaiaren irizpidearen arabera aski merezimendu egiaztatzen duen pertsonari edo erakundeari emango zaio saria.

Saria 3.000 eurokoa izango da, legez aplikatu beharreko atxikipeak barne. Diru kopuru hau ordainketa bakarrean ordainduko da, epaimahaiak saria eman ondoren.

Apirilaren 6aren inguruan (Eva Campo Müllerren jaioteguna) saria emateko ekitaldia egitea aurreikusten da.

7. Oinarrien onarpena

Deialdi honetan parte hartzeak oinarri hauek onartzea dakar. Klausularen bati buruzko zalantzarik balego, antolatzaileak izango dira azken erabakia hartuko dutenak.
Argibide gehiago: evacampomuller.elkartea@gmail.com